
6. BEZEROEKIKO HARREMANAK


Bezereekin modu eraginkorrean ezagutarazteko, lehen kontaktua ezarri ondoren, funtsezkoa da ekintza zehatzak eta koordinatuak garatzea, gure proposamena erakargarri bihurtzeko eta herritarren interesa pizteko. Horretarako, sare sozialetan presentzia aktiboa izango dugu, bereziki **Instagram** eta **TikTok** kontua baliatuz, eduki dinamiko, bisual eta gardenak partekatzeko, gure proiektuen atzealdeko istorioak, jarduera-pasarteak eta kanpainen xehetasunak barne hartuz, gertutasuna eta konfiantza sortuz, eta audientzia zabala erakarriz. Eduki hauek modu ulergarrian eta erakargarrian diseinatu dira, betiere gure balioak eta helburu sozialak modu argi eta koherentean transmititzeko. Horrez gain, ekintza hau sare sozialen interakzioekin osatuko da, erabiltzaileen galderak erantzuteko eta haien iritziak jasotzeko aukera eskainiz. Modu horretan, lehen kontaktu hurbil eta pertsonalizatu bat sustatuko da.

Gure estrategia ez da soilik online komunikazioan oinarrituko, kontaktu presentziala ere landuko dugu Bizkaiko hainbat udalerritan: Bilbo, Barakaldo eta Santurtzi, besteak beste. Bertan, herritarrekin aurrez aurre **elkarriketak** egingo ditugu, gure proiektua modu errazean eta ulergarrian azalduz, zalantzak argituz eta haien beharrak zuzen ezagutuz. Jarduera hauek ezinbestekoak dira harreman sendoa eta konfiantzazkoa sortzeko eta bertan jasotako iritziak gure proposamena hobetzeko. Era berean, ikastetxe eta gazte-zentroetan adin guztietara egokitutako hitzaldi eta tailerrak antolatuko ditugu, gure balioak ezagutarazteko eta gazteen parte-hartzea eta sentsibilizazioa sustatzeko. Helburua ez da soilik informazioa ematea, baizik eta gazteak proiektuan aktibo bihurtzea eta parte-hartze zuzena sustatzea, etorkizunean komunitate solidarioaren parte sentiaraziz.

Kale-eragin bisuala ere gure strategiaren parte izango da; kartelak, irudiak eta mupi digitalak (aurreko entregan honi buruzko irudiak aurkitzen dira) jarriko ditugu jendea igarotzen den gunetan, gure mezua egunerokoan ikusgai egon dadin eta lehen kontaktua erraz ezartzeko. Ekintza hauek modu koordinatuan garatuta, gure presentzia fisikoa eta digitalean integratuko dira, eta horrela, herritarrek proiektuarekin konektatzeko aukera izango dute, haien interesa piztuz eta parte-hartze aktiboa sustatuz.

Bezereen integrazioa bermatzeko, gure webgunea eta online denda izango dira tresna nagusiak, parte-hartze sozialerako bide garbi, erraz eta esanguratsuak eskainiz. Webgunean bertan, pertsona bakoitzak modu sinplean sartu ahal izango da, gure proiektuekin modu zuzenean konektatzeko. **Suskrizio solidario** sistema bat eskainiko dugu, non erabiltzaileek hileko edo urteko ekarpenak egin ahal izango dituzten, euren ahalmen eta interesen arabera. Sistema honen bidez, erregistratutakoek informazio eskusiboa jasoko dute, gure jardueren inguruko eguneraketak, eragin-txostenak, kanpainetako xehetasunak eta jarduera zein ekitaldietara sarbide aurreratua barne hartuta. Horrela, parte-hartze iraunkorra eta informatua bultzatzen da, eta bezeroak proiektuan modu aktiboan integratzen dira.

Horrez gain, kideen edo afiliatuen programa bat garatuko dugu, parte-hartze sakonagoa nahi dutenentzat. Programa honek aukera emango die informazio-bileretan, tailerretan, kanpainen eta sentsibilizazio-jardueretan modu zuzenean parte hartzeko. Horrela, komunitatearen barne-kohesioa indartuko da, parte-hartzaileek protagonismoa izango dute eta proiektuaren jarraipena eta motibazioa izango dute. Berez, ekintza hauen bidez bezeroek komunitatearen parte sentiarazteko aukera izango dute, eta euren ekarpenak modu esanguratsuan egiten direla ikusi ahal izango dute.




(Instagram: <https://www.instagram.com/panpinaskeak>)

Era berean, ekarpen puntualak egin nahi dituztenentzat, bono solidarioak eskainiko ditugu, zenbateko desberdinetan, online edo puntu presentzialetan eskuragarri. Izan ere, pertsonen konpromiso iraunkorrik hartu gabe ere parte har dezakete. Gure ONGari begira, komunitate zabal bat malgutasunez eskaintzen lagunduko digu. Boluntariora-programa ere abiatuko dugu, non parte-hartzaileek kanpaina informatiboetan, jarduera hezitzaileetan, ekitaldietan edo lan logistikoetan parte hartu ahal izango duten, esperientzia praktiko zuzena jasoz eta gure proiektuen eragina lehen eskutik ezagutuz.

Azkenik, komunitate digital aktibo bat sortuko dugu, parte-hartzaileek esperientziak partekatu, albiste eguneratuak jasotzeko eta erronka solidarioetan parte hartzeko aukera izango dutelarik. Gure proiektuaren bazkideak izan nahi dutenei, hots, gurekin batera gizartera helburu berdinak eskaini nahi dutenei sartzearan galdetegi labur bat bete beharko dute, haien interesak, lehentasunak eta gaitasunak identifikatzeko; horrekin, parte-hartzea pertsonalizatu eta esanguratsua lortu nahi genuke.

Ondorio gisa, ekintza hauek guztiak modu koordinatuan garatuz, bezeroak modu eraginkorrean integratuko dira, proiektuan parte-hartze aktiboa sustatuko dute eta gure proposamenarekin modu zuzenean bat eginez, komunitate solidario, aktibo eta konprometitu bat sortuko dugu.

Webgunea (esteka): <https://sites.google.com/view/panpinaskeak/inicio>



BEZEROAREKIN HARREMANA ETA BEZEROEN INTEGRAZIOA



Online presentzia

Instagram kontua



Kale-eragin bisuala

Kartelak, irudjak,
mupi digitalak

Kontaktua aurrez aurre

Bizkaiko
udalerrri nagusiak



Programa de afiliación / kideen programa

Kohesio komunitarioa



Hezkuntza eta gazte-zentroak

Tailerrak eta hitzaldiak



Bonos solidarioak

Ekarpen puntualak